

EROSKI-K BILBOKO ITSADADARREAN EGITEN DUTEN ESTROPATADAN PARTE HARTUKO DU

- **Kanpainara atxiki diren kooperatibaren saltokiek bost eurotan salduko dituzte tiketak, Ibaizabal zeharkatuko duten ahateen zenbakiekin**
- **Lasterketa amaitzean, tiket guztiak trukatu ahalko dira edo, hilabetez, WOPen behin-behineko denda berrian**
- **The Walk On Project fundazioak antolatzen du kanpaina, gaitz neurodegenetariboen terapietarako ikerkuntza proiektuak diruztatzeko xedearekin**
- **Aurtengoa historikoa izango da, munduan aurrenekoz bioahateak estreinatuko baitira, landare jatorriko materialekin eginak**

Elorrio, 2021eko irailaren 14a.- [EROSKI](#)k aurten ere parte hartuko du Estropatadan. Bilboko itsasadarrean egingo dute, urriaren 3an. Geokokatuta diren ahateen lasterketa bat da, Ibaizabalen egiten dena eta Bilbon arrakastatsua bihurtu dena. Aurten ere berrikuntzak dakartza lasterketak; izan ere, ohiko ahatetxoek berriz zeharkatuko dute itsasadarra, baina plastiko tradizionalaz eginak izan beharrean material alternatiboz eginak izango dira. Kanpaina hasi da dagoeneko, eta urriaren 2ra arte luzatuko da, larunbarekin; hala, biharamunean izango da ahateen estropada.

EROSKI bat egin du ekimenarekin, eta tiketak salduko ditu bost eurotan, Bizkaiko zenbait supermerkatu eta hipermerkatutan, itsasadarra zeharkatuko duten ahateen zenbakiekin. Lehenengo direnek sari bereziak izango dituzte, eta gainerakoak lasterketa amaitu ondoren trukatu ahalko dira edo WOPen behin-behinean ipiniko dute dendan hilabetez.

Kanpaina honen antolatzaileak, [The Walk On Project](#) fundazioak, helburu jakin batzuk ditu: ikerketa proiektuak diruztatzen ditu, gaitz neurodegeneratiboen terapiak bilatzeko; horrelako gaitzen gorabeherak ezagutarazten ditu; eta kontzientzia soziala bultzatzen du, ikerkuntzaren eta zientziaren alde.

WOPen aurtengo Estropatadan ahatetxoak berreskuratu dituzte, bi urtean aukera iraunkorak bilatzen jardun ostean, hura denez gero elementu esanguratsua. Zenbait euskal erakunderen nazioarteko ikerketari esker berreskuratu ahal izan da, zeinek I+Gren arloan ibilbide luzea egin baitute plastikoa ez den material alternatiboen bila. Bioahateak dira, iraupena dutenak eta konpostagarriaren ziurtagiria dutenak. Wopatoentzat diseinatutako molde jakinetan prozesatzen dira material iraunkor eta biodegradagarriekin.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Bederatzigarrenez

Estropatada ez da bakarrik familian egiten den festa handi bat, aurten bederatzigarrenez egingo dutena COVID-19aren neurrietara egokituta. Wopatoen lasterketa ikusgarri eta original hau punta-puntakoa da teknologia aldetik, ahate bakoitzaren postua zein den jakin daiteke-eta zintzilik duen txipari esker. Lasterketa bakarra da egiazko jarraipena egiteko modua ematen duena webgunetik (wopato.com) eta, gainera, WOPen ametsarekin bat dator, hau da, gaitz neurodegeneratiboen aurka borrokatzea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)